

3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak

↳ Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean

BIDELAGUNA PLANA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartutako Heziberri 2020 Planaren barruan Bidelaguna Proiektua 2017/18 kurtsorako deialdia egin zuen. Beurko BHIk eskaera azaldu zuen, lehenengo urtea izanik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 2. mailako ikasleei egokitu genien. Lehentasuna izango dute eskolan zailtasuna edo atzerapenak dituzten ikasleak, horren arrazoia beren gizarte-egoera desabantailatsua bada. Beraz, gure lehenengo urte honetan baditugu 12 ikasle aurrez adierazitako lehentasunak errespetatuz. Dena den, ikasle berriak sar daitezke ikasturtean zehar, baldin eta taldean etortzeari uzten dionaren arabera.

Eskola Agenda 21

Eskolako Agenda 21 ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza programa bat da. Hezkuntza Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da eta udalerriko garapen iraunkorrean esku hartu eta laguntzen du.

Ikastetxean jasangarritasunaren aldeko heziketa bultzatzea du helbururik nagusia ikaslearen garapen integrala lortu ahal izateko ondoko bi alderdietan: alde batetik, ikaslea kide aktibo eta kritikoa izatea eta, beste aldetik, naturaren kontserbazioarekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako pertsona izatea.

Urtero gai jakin bat lantzen dugu, dagoeneko Hondakinak, Ura, Energia eta Kontsumoa gaiak landu ditugu, besteak beste. Aurten amaiera emango diogu Klima Aldaketa gaiari.

Eskolako Agenda 21 guztion proiektua da eta guztion artean aurrera eramaten dugu. Aurten Errekonozimendu 17-18 prozesuan parte hartuko



dugu auto-ebaluazioa eta auditoria baten bidez.

Gaindituztat emanaz gero lortuko genituzke:

- “Eskola jasangarria” ziurtagiria eta bandera berriztea.
- Diru-laguntza gehiago proiekturako.
- IRAES sarearen partaidea izatea.

Informazio gehiago gure blogean:

<http://ag21beurko.blogspot.com.es/>

Hezkidetza

Beurko BHI-ko Hezkidetza proiektu honek, ikastetxearen barruan ematen diren baldintzapen sexisten aurkako borroka honetan laguntzen saiatu nahi du emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren ibilbidea sustatu nahi duen eta genero-indarkeriari aurrea hartu nahi dion hezkuntza integralaren ildoan.

Proiektuaren lege erreferentea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Hezkuntza-sistemaren barruan sexuen arteko ezberdintasun diskriminatzaileak eta erasokortasuna sexistak eragotzi ahal izateko diseinatutako *Hezkuntza-Sisteman Hezkidetza eta Genero-Indarkeriaren Prebentzioa Lantzeko Gida Plana* da.

Bere helburua zera izango litzateke: egungo eskola mistoa hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzea. Eskola horren erreferentzia pertsonak izango dira eta haien identitateen garapena; eskola hori zuzenagoa izango da denontzat, genero, hezkuntza eta gizarte-desberdintasunik gabeko eskola bat.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu hezkidetzan oinarritutako irakaskuntza, garbi esanda: irakaskuntza ez-sexista. Gure ikastetxeko eta inguruko pertsona bakoitzari libreki, bere sexuak baldintzatu gabe, bere burua garatzeko posibilitatea eman behar lioke. Hezkidetza proiektu honek rolik eta klitxerik gabeko jarduerak martxan jartzen ditu. Hezkuntza eredugarri baten bidean gizonezkoek eta emakumezkoek duten alderik ederrena jasoko lukeen irakaskuntza.



Beurko Urteko Plana by Nerea Goitia is licensed under a

[Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional License](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/).

IKT Heldutasun teknologikoaren eredua

Honen xedea da...

Definitzea Ikastetxeen Teknologia-heldutasuneko Eredua (IKT eredua), euskal eskolen teknologia modernizatzeko planteamendu zabalago batera jotzeko, eta bultza egiteko irakaskuntzan metodologia aldatu dadin eta irakaste-, administrazio-, informazioeta komunikazio-prozesuak digitalizatu daitezen.

Guk lortu nahi doguna...

Ereduek hiru maila ditu. Maila horiek, apurka-apurka, areagotu egiten dute ikastetxeko prozesuen digitalizazio-maila eta irakasleek ikasgeletan IKT erabiltzeko duten inplikazioa.

- Oinarrizko maila: «trebatzea eta erabiltzea»: maila honetan, irakasteko materialak eta administrazioak digitalizatzen hasiko dira ikastetxeak.

- Ikastetxean eskura dauden baliabide informatikoak erabiliko dituzte irakasleek: IKT gelak, ikasgeletako ordenagailuak, arbel digitalak, multimedia proiektagailua, eta abar.
- Hezkuntza-komunitatearekin dituzten harremanetan aplikazio informatikoak erabiltzen hasiko dira, bai Sailak jarritakoak, bai ikastetxeak berak jarri dituen beste batzuk.

Hala ere, aldi batean, beste konponbide tradizional batzuetara jo ahal izango da.

